

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BILBAO EKINTZA
EPEL-EN AURREAN**

_____ andreak/jaunak (NAN zenbakia: _____), bere izenean
edo enpresaren ordezkartzan (IKF: _____);
sozietateren helbidea/helbide fiskala: _____
edo Bilboko lantokiaren helbidea: _____
_____ ; tel.: _____
eta helbide elektronikoa: _____),

ONDORENGOA ADIERAZTEN DU:

- a) Ezagutzen eta onartzen ditu laguntza horien oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen du egiazkoak direla enpresak eskaera-formularioetan emandako datuak.
- b) Mikroenpresa gisa kalifikatzeko beharrezko baldintzak betetzen ditu (gehienez 10 langile).
- c) Establezimendua irekitzeak ez du esan nahi udalerriko beste eremu batzuetan lehendik dagoen jarduera bat lekuz aldatuko denik.
- d) Ez du bigarren mailara arteko (ezkontidea barne) ahaidetasun-harremanik lokalaren jabetzarekin.
- e) Onuraduna ez da lokalaren jabea. Era berean, lokala ez da pertsona juridiko eskatzaileen (sozietatea) ezein bazkideren jabetzakoa.
- f) Deialdi honetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu, eta ez du Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan xedatutako onuradun izateko debekurik.
- g) Gaur egun egunean ditu Zerga Ogasunarekin, Bilboko Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga-betebehar guztiak, eta Bilbao Ekintza EPELi hori egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak kontsultatzeko eta biltzeko baimena ematen dio, beren-beregi aurka agertzen bada izan ezik. Horrelakorik gertatuz gero, dokumentu honen amaieran jasoko du.
- h) Onuradun gisa, Bilbao Ekintzari helburu berarekin lortutako dirulaguntza guztien berri emateko konpromisoa hartzen du, bai eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko ere, hala eskatzen diotenean.
- i) Deialdi honetako 4. eta 5. ataletan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen ditu. Pertsona juridikoen kasuan, beren-beregi adierazten du mikroenpresa edo enpresa txiki gisa kalifikatua izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela.

- j) Deialdi honen esparruan aurkeztu du dirulaguntzaren eskaera, eta, gainera, oinarrien 9. atalean deskribatutako dokumentazioa aurkeztu du adierazpen honekin batera:
- k) Baimena ematen du prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak _____ helbide elektronikoaren bidez egiteko.

_____, 20 ____ (e)ko _____aren ____ (a)

Sin.

****DATUEN BABESA**

Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritza Nagusiak, Bilboko Udalak erakunde honi bitarteko gisa agindutako administrazio-espeditteen kudeaketaren esparruan, datu pertsonal hauek tratatzen ditu ahalmen publikoak gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin bat etorriz. Interesdunak eskubidea du bere datuak ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeko, bai eta tratatzearen aurka agertzeko edo hori mugatzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi beharko du: Nafarroa kalea 5-2. solairua, 48001 Bilbo. Interesdunak, halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea du. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide elektroniko honetara: juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus

UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, interesdunak EZ du Bilbao Ekintza EPEL edo beste administrazio publiko baten esku dagoeneko dagoen dokumentaziorik aurkeztu behar; izan ere, EPELeke egoki diren dokumentuak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta behean dagoen laukitxoa markatuz interesdunak AURKAKOA adierazten badu**. Hala bada, interesdunak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.

Ez du baimenik ematen kontsulta hauek egin daitezen (Bizkaiko Foru Aldundia - Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia), honako arrazoi hauen ondorioz:

Behean sinatzen duena da emandako datuen egiazkotasunaren erantzule osoa.

Eskatzailearen edo legezko ordezkariaren sinadura

Bilbo, 20__ (e)ko _____aren ____ (a)